

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**4/2020 Foru Araua, apirilaren 22koa, martxoaren 24ko 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara**

Arabako Batzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2020ko apirilaren 22an egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

4/2020 Foru Araua, apirilaren 22koa, martxoaren 24ko 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, martxoaren 24ko 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara.

Aipaturiko 8. artikuluko 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikuluko arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da martxoaren 24ko 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 22a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**